DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2018ko azaroaren 20an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

*"Talde neofaxista eta neonazien aurka erabakitasunez ekintzarik bideratu ez izanak mundu mailan eta Europa mailan, baita Espainiako Estatuan ere, egun xenofobiak gora egitea ahalbidetu duela uste dugu. Talde horiek gorrotoa eta indarkeria akuilatzen dute gizartean eta, horrenbestez, ezinbestekoa da iraganean zertarako gai izan ziren oroitaraztea. Horrela gaur egun, faxismo berriaren berragerpenak hauspotuta, adierazi behar dugu talde horietatik milaka pertsona ezberdinei bizitza kentzen ari zaizkiela, errefuxiatu eta migratzaileei, gutxiengo etniko eta erlijiozko kideei, LGTBQI kolektiboko pertsonei, giza eskubideen eta ingurumenaren defendatzaileei, aktibista politikari eta polizia-indarretako kideei.*

*Europan kezkaz jarraitu da fenomeno hori, are gehiago 2011n Norvegian 77 pertsonen bizitza errotik moztu zituen eraso neofaxistaren ondotik eta, Europolek, sei urte beranduago, 2017an, aurreko urtearekin alderatuz eskuin muturrak eragindako delituak ia bikoiztu egin zirela egiaztatu ostean. Estatu Batuetan, joan den larunbatean, urriaren 27an, herrialde horretan judutarren komunitatearen aurka inoiz ezagutu den erasorik hilgarriena gertatu zen, izan ere, 11 pertsona eraili zituen Pittsbugheko sinagoga batean tiratzaile antisemita batek. Gertaera hori salatu egiten dugu eta Estatu Batuetako herritarrei gure doluminak helarazten dizkiegu.*

*Azken urteotan Europan rap-abeslariak eraili dira, Pavlos Fyssas kasu, edo ikasleak, Clément Méric esate baterako, Jo Cox diputatua hil zuten, edota LGTBQI kolektiboko Zak Kostopoulos aktibista erail. Badira meskiten eta komunitate musulmanen aurka planak bururatu eta eraso terroristak egiten dituzten erakundeak hainbat herrialdetan, Erresuma Batuetan, Alemanian edo Frantzian, adibidez. Suedian errefuxiatuentzako abegi-egoitzei su ematen zaie edo urtez urte ohoratu egiten dira SS ikurrak Letonian. Ukrainiako eskuin muturrak buhameen taldeak jazarri eta erasotzen ditu eta baita Amnistia Internacional erakundeko kideak ere, besteak beste. Polonian giza eskubideen defendatzaile diren eurodiputatuei urkamendiaren mehatxua egiten zaie eta Italian eraso egiten zaie zuzenean. Espainian SOS*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 20 de noviembre de 2018, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"Consideramos que la falta de acciones decididas contra los grupos neofascistas y neonazis ha permitido el auge actual de la xenofobia a nivel mundial y europeo, incluido el Estado español. Estos grupos incitan al odio y la violencia en la sociedad, ante lo que es preciso recordar lo que fueron capaces de hacer en el pasado. Es así que en el presente, espoleados por el resurgir de un nuevo fascismo, hemos de señalar cómo desde estos grupos están quitando la vida a miles de personas diversas, de refugiados y migrantes a miembros de minorías étnicas y religiosas, de personas LGTBQI, defensores de los derechos humanos y del medio ambiente a activistas, políticos y miembros de las fuerzas policiales.*

*En Europa se ha vivido con preocupación este fenómeno, más aún tras el ataque neofascista que acabó en 2011 con la vida de 77 personas en Noruega y tras constatar Europol que seis años después, en 2017, se habían duplicado prácticamente los delitos cometidos por la extrema derecha respecto al año anterior. En Estados Unidos el pasado sábado 27 de octubre se perpetró el ataque más mortífero conocido en este país contra la comunidad judía, con 11 personas asesinadas en una sinagoga de Pittsbugh por un tirador antisemita, un hecho que condenamos y por el que mostramos nuestras condolencias al pueblo estadounidense.*

*Estos últimos años en Europa se están asesinando raperos como Pavlos Fyssas, estudiantes como Clément Méric, diputadas como Jo Cox, activistas LGTBQI como Zak Kostopoulos. Existen organizaciones que urden planes y cometen ataques terroristas contra mezquitas y la comunidad musulmana en países como Reino Unido, Alemania o Francia. Se incendian centros de acogida para refugiados en Suecia o se honra cada año a las SS en Letonia. La extrema derecha ucraniana persigue y ataca a grupos romaníes y a miembros de Amnistía Internacional, entre otros. Se amenaza con horcas a eurodiputados defensores de los derechos humanos en Polonia y se les agrede directamente en Italia. En España se han documentado por SOS Racismo hasta 309 casos de violencia xenófoba en 2016 y diversos grupos de extrema*

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

10740n XVII

*Arrazakeria erakundeak indarkeria xenofoboko 309 kasu dokumentatu zituen 2016an eta eskuin muturreko talde ugari eta Francoren diktadura militarreko nostalgiko zenbait ikertu edo kondenatu egin dira azken urteotan gure herrialdean gorroto-delituak edo eraso bortitzak leporatuta.*

*Hori dela eta, aurkezten dugu hurrengo:*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalak Holokaustoa ukatzeko modu oro kondenatzen du, naziek eta haien kolaboratzaileek burututako krimenak hutsaldu eta minimizatzeko ekintzak barne, eta iraganeko krimen faxistak ukatuko dituen baterako kultura baten alde egiten dugu.*

*2. Donostiako Udalak, horrenbestez, talde neofaxistek gutxiengo jakin batzuen aurka (europar beltzak eta Afrikako jatorria duten pertsonak, judutarrak, musulmanak, buhameak, hirugarren herrialdeetako biztanleak, muturreko txirotasunean eta etxerik gabe dauden pertsonak, LGTBQI kolektiboko pertsonak eta desgaitasunen bat duten pertsonak) burututako indarkeria kondenatzen du irmoki. Halaber, Espainian eskuin muturrak alderdi politikoetako kideen aurka gero eta maizago burutzen dituzten mehatxu eta erasoak kondenatzen ditugu.*

*3. Aldi berean, Donostiako Udalak faxismoaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta bestelako intolerantzia modu batzuen aurka borrokatzen duten gizarte zibileko kolektibo eta erakundeen aldeko babesa agertzen du".*
==================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2018ko azaroaren 22an.

*derecha y nostálgicos de la dictadura militar franquista han sido investigados o condenados en los últimos años en nuestro país por delitos de odio o ataques violentos.*

*Por este motivo, presentamos la siguiente:*

*DECLARACION INSTITUCIONAL*

*1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián condena todas las formas de negación del Holocausto, incluidas la trivialización y minimización de los crímenes cometidos por los nazis y sus colaboradores, así como abogamos por una cultura común que rechace los crímenes fascistas del pasado.*

*2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián condena por tanto enérgicamente la violencia perpetrada por grupos neofascistas contra minorías concretas, como europeos negros y personas de ascendencia africana, judíos, musulmanes, población romaní, nacionales de terceros países, personas en situación de pobreza severa y sin hogar, personas LGTBQI y personas con discapacidad. También condenamos las amenazas y ataques violentos crecientes por parte de la extrema derecha contra miembros de partidos políticos en España.*

*3. Al mismo tiempo el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián manifiesta su apoyo a los colectivos y organizaciones de la sociedad civil que luchan contra el fascismo, el racismo, la xenofobia y otras formas de intolerancia". ==========================*

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 22 de noviembre de 2018.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

Secretario General

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. DEL ALCALDE:**